



**Arartekoaren 2014R-1764-14 ebazpena, 2014ko abenduaren 10ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaion, lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko familientzako diru-laguntzen unibertsaltasuna eta maila ekonomikoa mantentzea, unean uneko beharrezanean erantzuteko kontziliazio-laguntzen programara bideratutako aurrekontu-partidak egokitzea eta diru-laguntzen banaketa bidezkoagoa ahalbidetzen duten irizpideak txertatzea.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoaren esku hartzea eskatu zuen, 2014ko lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko diru-laguntzak ematera bideratutako aurrekontu-kredituaren ahitzearen gainean Eusko Jaurlaritzak egindako iragarpena dela eta.

Interesdunak, 2014ko martxoan egin zuen laguntza-eskakizuna eta Zuzenean-Herritarren Arreta Zerbitzura jo zuen bere laguntza-eskaeraren espedientearen egoeraren berri jakiteko. Bertan jakinarazi zitzaion 2014ko otsailaren 28ra arte aurkeztutako eskakizunak soilik abonatu zirela eta ez zekitelako gerora aurkeztutakoekin zer gertatuko zen.

Herritarrak bere ezinegona adierazi zion erakunde honi, aurrekontu-kredituaren ahitzeagatik, diru-laguntza hori beharrezko baitzuen bere lanaldia murriztu ondorengo soldataren txikiagotzea orekatzeko, baita Eusko Jaurlaritzak kontziliazio-laguntzekin gertatuko zenaren inguruan informazio argia ez emateagatik.

Gerora, zentzu berean adierazi dute haien ezinegona, gai honen inguruko kexa eta zalantzak aurkezteko erakunde honetara jo duten hainbat herritarrek.

2. Behin kexa aztertuta eta izapidetzea onartuta, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera zuzendu ginen, eskatuz, azken urteetan kontziliazio-laguntzetara bideratutako aurrekontu-partiden gaineko informazioa, aurkeztutako eta onartutako eskakizunen gainekoa, 2014rako kredituaren ahitzea iragarri ondoren aurreikusitako jardunaren gainekoa eta herritargoari helarazitako informazioaren gainekoa.
3. Eusko Jaurlaritzak, bere erantzun-idazkian honakoa adierazten du, besteak beste:
  - a. *"2013an Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako diru-izendapena ez zen nahikoa izan urte horretan eskaturiko laguntza guztiak ordaintzeko. Horregatik Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldiko aurrekontuak erabili behar izan dira 2013ko azken hilabeteetan egindako laguntza-eskaerak ordaintzeko."*



- b. 2014/01/01 eta 2014/09/25 arteko epealdian kontziliaziorako 19.064 laguntza-eskakizun aurkeztu dira (seme-alaben zaintzarako, mendekotasun-egoeran edo osasun-larritasun handiko egoeran aurkitzen diren pertsonen zaintzarako eta zaintzaileen kontrataziorako). Horietatik 921 ukatu ditu administrazioak, 37 eskatzailek uko egin diote laguntzari, eta 5.056 jaso dute onarpena, horietatik 4.994 abonatu direlarik.

- c. Ez da aurreikusten laguntza hauek emateko aurrekontu-partidan esleitutako kredituaren handitzerik.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Ogasun eta Finantza Sailari aurrekontu-partida berezi bat sortzeko eskatzeko asmoa du, baietsitako gorako errekurtsoen ebazpenek zein pertsona onuradunaren aldeko suertatzen diren ebazpenen aldaketek sortutako gastuak egozteko.

- d. *“Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II, III eta V kapituluetan erregulatutako laguntzak direla-eta 2014ko ekitaldian egindako eskaerak ez badira ekitaldi horretan bertan ebazten, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren asmoa de Euskal Autonomia Erkidegoko 2015eko Aurrekontu Orokorretako aurrekontu-partidari egozte aipaturiko dekretuaren II, III eta V kapituluetan aurreikusitako laguntzek eragindako gastuen ordainketa.”*

- e. 2014ko ekitaldirako onartutako aurrekontu-kredituaren ahitzea publiko egiten duen Gizarte Politiketako Sailburuordearen Ebazpena EHAOn argitaratu dela eta, jakinarazpena bidali zitzaien Zuzenean- Herritarren Arretarako Zerbitzuko arduradunei, herritarren arreta taldeko agenteei helarazteko. Aipatu jakinarazpenaren elementu adierazgarrienak honakoak dira:

- i. Aurrekontu-partidak ez dauka krediturik abuztuaren 22an baietsi ezin izan diren eskakizunei erantzuteko. Laguntza-eskakizunen ebazpena eskakizunak erregistratu diren kronologia-ordenean egiten dela kontuan hartuta, horrek otsailaren 28tik aurrera egindako laguntza-eskakizunetan eragiten du.
- ii. Abuztuaren 22an baietsi ezin izan diren laguntza-eskakizunak ukatu egingo dira, kreditu egoki eta nahikoaren gabezia oinarrituta. Hala ere, 2015ko ekitaldiari dagokion aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio, eskakizuna berriro aurkeztu beharrik gabe, betiere, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen programak aipatu ekitaldian bere jarraitutasuna mantentzen badu eta, laguntzen programa mantenduta, kreditu egoki eta nahikoa baldin badago, laguntza-eskakizunak ebazten direnean.



- iii. Herritarrek eskakizun berriak aurkezten jarrai dezakete, egungo ekitaldian krediturik egon ezean ere, aurreko puntuan azpimarratutako baldintzak ematekotan, aipatu eskakizunak 2015eko ekitaldiari egotz baitakizkio, eskakizuna berriro aurkeztu beharrik gabe.

### Gogoetak

1. Familia eta lana bateragarri egiteko diru-laguntzetara bideratutako kredituaren ahitzearen iragarpenak, zeinak 2014ko otsailaren 28tik aurrera aurkeztutako eskakizunei eragiten dien, neurri horietakoren batera biltzeagatik jasandako soldata murrizketak orekatzeko sarrera horiek beharrezko zituzten herritar ugarien artean ezinegon handia sortu du.

Erakunde honetara hurbildu diren herritar askok adierazi du, ulergarria dela baliabideak mugatuak izatea edota laguntzen ebazpen eta abonuan atzerapenak gertatzea, baina zaila da onartzen 2014. urterako aurreikusitako kreditua abuztuan ahitu izana eta, batez ere, horrek martxotik aurrera aurkeztutako eskakizunei eragitea.

Herritargoak adierazitako ezinegonak asko esaten du familia barneko zaintza gizarte-ondasun gisa ulertu eta kontziliazio-eskubideari uko egin nahi ez dion gizarte batez. Euskadiko herritarrek haien bizitza pertsonala eta lan- zein familia-erantzukizunak bateratzea ahalbidetzen dizkieten neurri gehiago eta hobeak nahi dituzte, eta xede honen egikaritzean erakundeen laguntza jasotzea espero dute.

Botere publikoek ezin dute gizartearen eskaera hau alde batera utzi.

2. Abenduaren 12ko 13/2008 Legeak, Familiei Laguntzekoak, lan-bizitza, familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzearen aldeko apustua egiten du.

*Horretarako, "lege honen bidez laguntzarako baliabide eta zerbitzu gehiago eskain daitezten sustatzen da, lehenagotik badaudenak sendotzeaz batera, eta, era berean, zuzeneko diru-laguntzak jartzen dira uztartze-neurriren batzuek baliatzeagatik diru-sarrerak murriztu zaizkienentzat, hala nola Langileen Estatutuan edo beste lege batzuetan, hitzarmen kolektiboetan edo banakako akordioetan ezarritako uztartze-neurriez baliatzeagatik."*

13/2008 Legeak ez du laguntza hauek jasotzeko eskubidea subjektiboa biltzen -horrek eskakizunen baiespena ekarriko luke, baldintzak betetzen diren kasuetan-, aitzitik, aurrekontu-erabilgarritasunaren mendeko gisa definitzen ditu.

Laguntzak erregulatzen dituen dekretuak (ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa) 53.



artikuluak ezartzen du baliabide ekonomikoak *"Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan edo aurrekontu-arloko lege-mailako arauetan horretarako propio ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira."* Artikuluak honela ere dio *"ekitaldi ekonomiko batean esleitutako kreditua agortzen bada, organo kudeatzailearen goreneko kargudunak administrazio-ebazpena emango du zirkunstantzia horren berri emateko. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta, bertan, aipatutako kreditua noiz agortu den adieraziko da."*

Azkenik, honakoa adierazten du *"Aurrekontu-ekitaldi batean laguntzak jasotzeko eskaerei erantzuterik ez badago ekitaldi horren aurrekontu-kredituak kontuan hartuta, eskaera horiek hurrengo ekitaldiko kredituei esleitzeko aukera izango da, eskaera berriz ere aurkeztu behar izan gabe, baldin eta eskaera horiek dekretu honetan laguntzak lortzeko ezarritako betebeharrak betetzen badituzte."*

3. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, aipatu dekretuak adierazi bezala, kredituaren ahitzea publiko egin zuen 2014ko abuztuaren 22ko Gizarte Politiketako Sailburuordearen Ebazpenaren bidez, 2014ko irailaren 1eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratua. Era berean, aurrekarien 3.e) puntuan jaso dugun jakinarazpenaren azalpenean ikus zitekeen bezala, kreditua ahitzeko unean baietsi ezin izan ziren laguntza-eskakizunak 2015eko aurrekontu-kredituari egotziko zaizkiola adierazi zuen, -2014ko aurrekontuaren kargura abonatu ziren 2013ko eskakizunekin gertatu bezala-betiere, kontziliazio-laguntzen programak bere jarraitutasuna mantentzen badu eta, laguntzen programa mantenduta, kreditu egoki eta nahikoa baldin badago, laguntza-eskakizunak ebazten direnean.

Horrengatik guztiarengatik, 13/2008 Legean xedatutako kontziliazio-laguntzen izaera kontuan hartuta -aurrekontu-erabilgarritasunaren mendekoak, ondorioztatu behar dugu, laguntzei aurre egiteko zegoen kreditua behin ahituta, Sailak araudi erregulatzaileak ezartzen dituen baldintzak bete dituela, kredituaren ahitzearen eta laguntzak hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura abonatzeko aukerari dagokienean.

4. Badago galdetzea, ordea, kreditu erabilgarriak gizartearen beharrezaneia eta eskariaren aurreikuspenei erantzuten ote dien.

Sailak emandako informazioaren arabera, 2011ko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek 34,1 milioi euro baino gehiago bideratu zituzten kontziliazio-laguntzetara. 2012. urtean, 30 milioi euro bideratu ziren eta 8 milioi eurotan handitu zen aurrekontua programak eragindako gastuari erantzuteko.

2013ko ekitaldi ekonomikoan 17,3 milioi eurotara murriztu zen aurrekontu-partidaren zenbatekoa, eta ez zen aurrekontu handitzerik egon, esleitutako kreditua urte horretan aurkeztutako laguntza-eskakizun guztiei erantzuteko



nahikoa izan ez bazen ere. Ikusi dugun bezala, urteko azken bost hilabeteetako eskakizunei 2014ko ekitaldi ekonomikorako Aurrekontu Orokorren kargura erantzutea erabaki zuen sailak, 17,3 milioi euroko zenbatekoa errepikatu zuen aurrekontua, alegia.

Eskariaren txikitze-aurreikuspenari egotz dakioko aurrekontu-kredituan egindako murrizketa. Egia da, 2010ean aurreko urtearekiko eman zen eskarien handitzearen ondoren (47.011 2009an eta 49.711 2010ean), hurrengo ekitaldiek eskariaren jaitsiera progresiboa erakusten dutela. Hala ere, eskarian emandako jaitsiera txiki honek ez du korrelaziorik mantendu aurrekontu-kredituaren murrizketarekin, eta 2012ko aurrekontuaren handitzea, 2013ko azken bost hilabeteetako laguntza-eskakizunei 2014rako esleitutako kredituarekin erantzun izana eta ekitaldi honetarako kreditua abuztuan ahitzea -martxotik aurrera aurkeztutako eskakizunei eraginez- parekatze falta honen seinale argiak dira, eta aurrekontuetan esleitutako partidak gizartearen errealitateari eta antzemandako beharrezanei egokitzeko beharra baieztatu besterik ez du egiten.

5. Egungo egoeran baliabide ekonomikoak mugatuak direla eta horrek lehentasunen arabera hartu beharreko erabakiak hartu beharra dakarrela presente du erakunde honek. Aurreko urteetako esperientziak kredituaren ahitze azkarra aurrekustera garamatzan testuinguru honen baitan, gertatu izan dena, ematen du, eskakizunei kronologia-ordena zurrunean kreditua ahitu arte erantzun dien azken urteotako praktikak (hain handi batean dekretu erregulatzailak determinatzen duena), ez duela aukera berdintasuna errespetatzen, kasu askotan ematen den bezala -gehiengoa diren seme-alabak zaintzeko laguntza-eskakizunetan-, eskakizuna aurkezteko unea seme-alaben jaiotzaren eta ondorengo gurasoen lanerako itzuleraren datek baldintzatua den bakoitzean.

Sailak familiak laguntzeko bere politikaren neurrien inguruko hausnarketa emango du laster, adierazi duenaren arabera, eta uste dugu aipatu elementua hausnarketa burutzean kontuan hartu beharrekoa dela. Eskakizunak ordenatzeko irizpideetan egin beharreko hobekuntza, familiei begirako laguntza publiko gorakorrean eta arlo honi dagokionean eredu europarrekiko egokitzapenean oinarritutako marko baten baitan egin beharko da.

6. Ararteko erakundeak hausnarketa sakona egin berri du familien beharrezan eta eta familiei laguntzeko politika publikoen gainean, 2014. urteko bi unetan isla publikoa izan duena.

Aurreko ekainean Arartekoak [Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak](#) ezohiko txostena argitaratu zuen, non, testuinguru europarraren azterketa konparatu baten ostean, euskal administrazio publikoei zenbait gomendio egiten zaizkion, horien artean batzuk, lan-bizitzaren, familia-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren bateragarritasuna sustatzera bideratutakoak.



Zehazki, Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaio, besteak beste, *"Maila ekonomikoa eta gaur egungo uztartze laguntzen unibertsaltasuna mantentzera (familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko 177/2010 Dekretuak arautuak) eta etorkizunean horiek igotzeko joera izatea" (11. gomendioa).*" (11. gomendioa)

Familiak eta haien beharrian eta erronkak egungo egoera sozial eta ekonomikoan: botere publikoen erantzunari buruz, 2014ko irailaren 9 eta 10ean Gasteizen ospatu zen Herriaren Defendatzaileen XXIX. Koordinazio Jardunaldiari amaiera ematen zien [Defendatzaileen Adierazpenean](#) azpimarratu egiten da *"Familiek, haien konfigurazioa eta osaera edozein direla ere, premia komun batzuk daukate. Hiru arlo hauek hartzen dituzte barne: a) seme-alaben hezierari eta familia barneko zaintzari lotutako kostuei aurre egiteko baliabideak; b) familia-erantzukizunak bateratzeko denbora eta zerbitzuak; c) informazioa, orientazioa eta aholkuak guraso-gaitasuna modu egokian garatzeko. Politika publikoek hiru arlo horietako premiak behar bezala bete behar dituzte."*

Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteari eta zaintza beharrianak dituzten pertsonen nahiz haurren arreta eta zaintza erantzukizuna banatzeari dagokionean, Defendatzaileek uste dute *"herri-administrazioek kontrataziorako sorospen zuzenak edo zeharkakoak, lan-merkatu itzultzeko pizgarriak eta trebakuntza- eta birziklatze-jardunak onartzen jarraitu behar dute. Horrez gain, emakumeak lan-merkatuan sartzearen eta gizonek familia-erantzukizunetan aktiboki parte hartzearen alde egiten duten arau-aldaketetan sakontzeari eutsi behar zaio."*

Balio bezate ohar hauek, lan-bizitza, familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzearen alde Arartekoak egindako apustu sendoa agerian jartzeko, geure seme-alaben, nagusien eta menpekotasun-egoera dauden pertsona maiteen zaintzari dagokionean, gizarte berdintzaile eta erantzunkide baten eraikuntzarako ezinbesteko printzipiotzat duena.

Guzti honengatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, erakunde hau sortu eta arautzekoak, 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendioa luzatzen diogu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari

## GOMENDIOA

1. Kontziliazioaren gastuak partzialki orekatzera bideratutako laguntza-ekonomiko unibertsalen sistema bat mantentzea. Horretarako eskatzen diogu, egun dauden kontziliazio-laguntzen unibertsaltasuna eta maila ekonomikoa mantentzeko, etorkizunean goranzko joera izan dezaten saiaturik.
2. Ondorioz:





- Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko familientzako diru-laguntzen programara bideratutako aurrekontu-partidak gizartean antzemandako beharrezanean egokitzeko.
- Aurreikusita daukan familientzako laguntza politiken berrikuspena egitean, laguntza ekonomikoen banaketa bidezkoagoa ahalbidetuko duten irizpideak txertatzeko, betiere, estandar europarrarentz urratsak emateari bideratuz horien diseinua.